Si en el año que se liquida hubiese tenido lugar un incremento del número de personas asalariadas, por comparación al año inmediato anterior, se calculará, en primer lugar, la diferencia entre el número de unidades del módulo «personal asalariado» correspondientes al año y el número de unidades de ese mismo módulo correspondientes al año inmediato anterior. Si en el año anterior no se hubiese estado acogido a la modalidad de signos, índices, o módulos, se tomará como número de unidades correspondientes a dicho año el que hubiese debido tomarse, de acuerdo a las normas contenidas en este número, de haber estado acogido a la modalidad.

A estos efectos se exceptúa en el cómputo de personal asalariado a aquél en virtud del cual sea de aplicación lo dispuesto en el apartado 2 del Anexo III de la presente Orden Foral.

Si la diferencia resultase positiva, a ésta se aplicará el coeficiente 0,60.

Diferentzia positiboa izan bada, eta, hortaz, 0,60ko koefizientea aplikatu bazaio, diferentzia hori ez da kontuan izango ondorengo gidoian xedatutakoaren ondorioetarako.

Ondoren zehazten den moduluko unitate kopuruen tarte bakoitzari hurrengo koefizienteak aplikatuko zaizkio:

<i>Tartea</i>	<i>Koefizientea/ Coeficiente</i>	<i>Tramo</i>
1,00eraino	0,90	Hasta 1,00
1,01 eta 3,00 bitartean	0,85	Entre 1,01 y 3,00
3,01 eta 5,00 bitartean	0,80	Entre 3,01 y 5,00
5,01 eta 8,00 bitartean	0,75	Entre 5,01 y 8,00
8,00 baino gehiago	0,70	Más de 8,00

8. Lokalaren azaleratzat, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Tarifak aplikatzeko Instrukzioak, apirilaren 20ko 1/993 Foru Dekretu Arauemailak onartuak, 14. 1.F Erregelaren a), b), c) eta h) letretan zehaztutakoa hartuko da.

9. Lokal independentea publikoari arreta egiteko salmenta lekua duena izango da. Lokal ez independentea, beste lokal, galeria edo merkatu baten barruan kokatua egoteagatik, publikoari arreta egiteko salmenta-leku propiorik ez duena izango da.

Ondorio horietarako, lokal independenteak izango dira Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Tarifak aplikatzeko Instrukzioak, apirilaren 20ko 1/993 Foru Dekretu Arauemailak onartuak, 14.1.F. erregelaren h) letzan xedatutakoaren arabera tributatu behar dutenak.

10. Argindarraren kontsumoa enpresa hornitzaileak fakturatutakoa izango da. Fakturan argindar «aktiboa» eta «erreaktiboa» bereizten direnean, lehenengoa bakarrik konputatuko da.

11. Potentzia elektrikoa argindarra hornitzen duen enpre sarekin kontratatutakoa izango da.

12. Lau pertsonak bete dezaketen mahaia hartuko da «mahi» unitatetzat. Edukiera gehiago edo gutxiagoko mahaiek dagokien proportzioan gehitu edo gutxituko dute zeinu edo modulu aplikagarriaren zenbatekoa.

13. Biztanleen kopurua udalerriko zuzenbidezko biztanleria izango da. Biztanleen udal erroldan inskribaturik dauden guztiek osatuko dute, udalerrian egon nahiz kanpoan egon. Egoiliar izaera inskripzioa egiterakoan eskuratzen da.

14. Ibilgailu edo multzo baten zama-edukiera honela kalkulatu da: Batetik, Azterketa Teknikoko Txarteletan administrazioak bere kasuan jar ditzaken mugak kontuan izanik gehienez baimendutako pisua hartuko da, eta bestetik, ibilgailu eramaleen taren batuketa egingo (zamarik gabeko kamioaren pisua, atoiarena, erdiatoiarena eta trakzio-buruarena). Bi kopuruen arteko diferentziak emango digu zama-edukiera, eta kilogramotan edo tonatan adieraziko da dagokionaren arabera, azken kasu horretan bi dezimalekin.

Erdiatoi dezberdinak erabiltzen dituzten trakzio-buruak direnean, beren tara zortzi tonatan ebaluatuko da gehienez.

15. «Plaza» esaten denean, establezimenduak ostatua emateko dituen unitate kopurua ulertu behar da.

Si la diferencia hubiese resultado positiva y, por tanto, hubiese procedido la aplicación del coeficiente 0,60, dicha diferencia no se tendrá en cuenta a efectos de lo previsto en el guión siguiente.

A cada uno de los tramos del número de unidades del módulo que a continuación se indica se aplicarán los coeficientes que se expresan:

8. Por superficie del local se tomará la definida en la regla 14.^a1.F, letras a), b), c) y h) de la Instrucción para la aplicación de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobada por Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril.

9. Por local independiente se entenderá el que disponga de sala de ventas para atención al público. Por local no independiente se entenderá el que no disponga de la sala de ventas propia para atención al público por estar ubicado en el interior de otro local, galería o mercado.

A estos efectos se considerarán locales independientes aquellos que deban tributar según lo dispuesto en la Regla 14.^a1.F, letra h) de la Instrucción para la aplicación de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobada por Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril.

10. Por consumo de energía eléctrica se entenderá la facturada por la empresa suministradora. Cuando en la factura se distinga entre energía «activa» y «reactiva», sólo se computará la primera.

11. Por potencia eléctrica se entenderá la contratada con la Empresa suministradora de la energía.

12. La unidad «mesa» se entenderá referida a la susceptible de ser ocupada por cuatro personas. Las mesas de capacidad superior o inferior aumentarán o reducirán la cuantía del módulo aplicable en la proporción correspondiente.

13. El número de habitantes será el de la población de derecho del municipio, constituida por el total de los residentes inscritos en el Padrón Municipal de Habitantes, presentes y ausentes. La condición de residentes se adquiere en el momento de realizar tal inscripción.

14. La capacidad de carga de un vehículo o conjunto será igual a la diferencia entre el peso total máximo autorizado determinado teniendo en cuenta las posibles limitaciones administrativas que, en su caso, se reseñen en las Tarjetas de Inspección Técnica y la suma de las taras correspondientes a los vehículos portantes (peso en vacío del camión, remolque, semi-remolque y cabeza tractora), expresada, según proceda, en kilogramos o toneladas, estas últimas con dos cifras decimales.

En el caso de cabezas tractoras que utilicen distintos semi-remolques, su tara se evaluará en ocho toneladas como máximo.

15. Por «plazas» se entenderá el número de unidades de capacidad de alojamiento del establecimiento.

16. «Eserleku» esaten denean, ibilgailuaren azterketa teknikoko txartelan azaltzen den unitate kopurua ulertu behar da, txoferrarena eta gidariarena kenduta.

17. «A» edo «B» motatako jolas makinak eta apustu-makinak Euskal Autonomia Erkidegokoan joko arautzen duen legerian hala definitutakoak izango dira.

Jardueraren titularraren jabetzakoak direnak, ordea, ez dira konputatuko.

18. «CVF» modulua Azterketa Teknikoko Txartelean azaltzen den ibilgailuaren potentzia fiskalak definituko du.

19. «Barraren luzera» moduluaren ondorioetarako, «barra» delakoa berezok eskatzen dituzten edari eta jakiak zerbitzatu eta apoiatzeko erabiltzen den mostradorea izango da. Bere luzera, metrotan eta bi dezimalekin adieraziko dena, bezeroak dauden aldetik neurtuko da zerbitzariarentzat erreserbatutako zona sartu gabe. Orma, pilare eta abarri itsatsita apoiatzeko barra lagungarriak egonez gero, haien luzera modulua kalkulatzeko hartu beharko da kontuan, aulkiak eduki edo edukitzea.

20. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urteko etekin garbia zehaztearen ondorioetarako, zeinu, indize edo moduluen batez bestekoa kalkulatzeko honako eragiketa hau egin beharko da: Horiei ezarritako kopurua bider jardueraren edo; jarduera sektorean erabili edo instalaturiko unitate kopurua, beraietako bakoitzari dagokiona.

Soldatapeko langileen eta soldatapekoak ez diren langileen kasuan, aipatu unitate kopurua orduen arabera zehaztuko da, eta, gainerako kasuetan, erabili diren edo instalatuta egon diren egunak kontuan izanik. Argindarraren kontsumoa edo ibilitako distantzia kalkulatzeko, berriz, kontsumitu diren orduko kilowatioak edo ibilitako kilometroak hartuko dira kontuan hurrenez hurren. Zenbaki oso bat ez bada, bi zenbaki dezimalekin adieraziko da.

Jarduera edo jardura sektorean moduluaren erabilera partziala ematen denean, konputatu beharreko balioa hainbanaketatik ateratzen dena izango da, benetako erabileraren arabera. Benetako erabilera zehazterik ez badago, zati berdinetan egotziko zaio moduluaren erabilera bakoitzari.

merkantzien errepide bidezko garraio jarduerarentzako arau espezifikoak

21. Merkantzien errepide bidezko garraio jardueraren etekin garbia (Jardura Ekonomikoen gaineko Zergaren 722. epigrafe), ondoren zehazten den prozedurari jarraiki kalkulatu da:

1. 1. fasea. Aurretiko etekin garbia.

Jarduerarako ezarritako zeinu, indize edo moduluen zenbatekoak batuz lortuko da aurretiko etekin garbia. Era berean, zeinu, indize edo moduluen zenbatekoa kalkulatzeko, haietako unitate bakoitzari emandako kantitatea jardueraren erabili edo instalatutako unitate kopuruarekin biderkatuko da. Kopuru hori zenbaki osoa ez denean, bi zenbaki hamartarrez adieraziko da.

Zeinu, indize edo moduluaren unitate kopurua zehaztera-koan, «Definizio Orokorrak» atalaren arauak izango dira kontuan.

2. 2. fasea. Gutxitutako etekin garbia.

Inbertsiorako pizgarrien zenbatekoa etekin garbiari gutxituko zaio, ondoren jasotzen den moduan, eta gutxitutako etekin garbia lortuko da horrela.

16. Por «asientos» se entenderá el número de unidades que figura en la tarjeta de Inspección Técnica del Vehículo, excluido el del conductor y el del guía.

17. Se considerarán máquinas recreativas tipo «A» o «B» y máquinas auxiliares de apuestas, las definidas como tales en la legislación reguladora del juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

No se computarán, sin embargo, las que sean de propiedad del titular de la actividad.

18. El módulo «CVF» vendrá definido por la potencia fiscal del vehículo que figura en la Tarjeta de Inspección Técnica.

19. A efectos del módulo «longitud de barra», se entenderá por barra el mostrador donde se sirven y apoyan las bebidas y alimentos solicitados por los clientes. Su longitud, que se expresará en metros, con dos decimales, se medirá por el lado del público y de ella se excluirá la zona reservada al servicio de camareros. Si existiesen barras auxiliares de apoyo adosadas a las paredes, pilares, etc., dispongan o no de taburetes, se incluirá su longitud para el cálculo del módulo.

20. A efectos de determinar el rendimiento neto anual en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el promedio de los signos, índices o módulos, se obtendrá multiplicando la cantidad asignada a los mismos por el número de unidades de cada uno de ellos empleadas, utilizadas o instaladas en la actividad o sector de actividad.

Dicho número de unidades se determinará en función de las horas, cuando se trate de personal asalariado y no asalariado, o días, en los restantes casos, de efectivo empleo, utilización o instalación, salvo para el consumo de energía eléctrica o distancia recorrida, en que se tendrán en cuenta, respectivamente, los kilovatios por hora consumidos o kilómetros recorridos. Si no fuese un número entero se expresará con dos cifras decimales.

Cuando exista una utilización parcial del módulo en la actividad o sector de actividad, el valor a computar será el que resulte de su prorrateo en función de su utilización efectiva. Si no fuese posible determinar ésta se imputará por partes iguales a cada una de las utilizaciones del módulo.

Normas específicas para la actividad de transporte de mercancías por carretera

21. El rendimiento neto correspondiente a la actividad del transporte de mercancías por carretera, epígrafe 722 de la tarifa del Impuesto sobre Actividades Económicas, se obtendrá aplicando el procedimiento establecido a continuación:

1. Fase 1. Rendimiento neto previo.

El rendimiento neto previo será la suma de las cuantías correspondientes a los signos, índices o módulos previstos para la actividad. La cuantía de los signos, índices o módulos, a su vez, se calculará multiplicando la cantidad asignada a cada unidad de ellos por el número de unidades del mismo empleadas, utilizadas o instaladas en la actividad. Cuando este número no sea un número entero se expresará con dos decimales.

En la cuantificación del número de unidades de los distintos signos, índices o módulos se tendrán en cuenta las reglas establecidas en el apartado de «Definiciones Comunes»

2. Fase 2. Rendimiento neto minorado.

El rendimiento neto previo se minorará en el importe de los incentivos a la inversión, en la forma que se establece a continuación, dando lugar al rendimiento neto minorado.

Gutxipena inbertsiorako pizgarriengatik:

Kenkaritzat har daitezke ibilgetu material edo ukiezinaren amortizazio kontzeptuan, funtzionamendu, erabilpen, gozatze edo zaharkitzea dela-eta elementu desberdinek izaten duten benetako balio-galerari dagozkion zenbatekoak.

Balio-galera benetakoa dela ulertuko da ibilgetu ondare elementuaren erosketa prezioari edo produkzio kostuari ondoko koefizienteetako bat aplikatuz ateratzen den emaitza denean:

1. Amortizazio linealeko gehieneko koefizientea.
2. Gehieneko amortizazio alditik ateratzen den amortizazio linealeko gutxieneko koefizientea.
3. Aurreko bi horien artean dagoen amortizazio linealeko beste edozein koefiziente.

Hona hemen amortizazio taula:

Minoración por incentivos a la inversión:

Serán deducibles las cantidades que, en concepto de amortización del inmovilizado, material o intangible, correspondan a la depreciación efectiva que sufran los distintos elementos por funcionamiento, uso, disfrute u obsolescencia.

Se considerará que la depreciación es efectiva cuando sea el resultado de aplicar al precio de adquisición o coste de producción del elemento patrimonial del inmovilizado alguno de los siguientes coeficientes:

- 1.º El coeficiente de amortización lineal máximo.
- 2.º El coeficiente de amortización lineal mínimo que se deriva del período máximo de amortización.
- 3.º Cualquier otro coeficiente de amortización lineal comprendido entre los dos anteriormente mencionados.

La tabla de amortización es la siguiente:

<i>Taldea</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Gehieneko koef. Lineala</i>	<i>Gehieneko aldia</i>
<i>Grupo</i>	<i>Descripcion</i>	<i>Coeficiente Lineal Máximo (%)</i>	<i>Período Máximo Urteak /Años</i>
1	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak / Edificios y otras construcciones	5	40
2	Lanabesak, erremintak, informazioa tratatzeko ekipoak eta sistema eta programa informatikoak / Útiles, herramientas, equipos para el tratamiento de la información y sistemas y programas informáticos	40	5
3	Garraio elementuak eta gainerako ibilgetu materiala / Elementos de transporte y resto de inmovilizado material	25	8
4	Ibilgetu ukiezina / Inmovilizado intangible	15	10

Erosketa prezioa edo produkzio kostua amortizatu ahal izango da hondar-balioa kanpoan utzita, halakorik bada.

Eraikinen kasuan, lurzorua balioari dagokion erosketa prezioaren zatia ezin izango da amortizatu, eta lurzorua balio ezezaguna denean, erosketa prezioa lurzoruak eta eraikinak erosketa-urtean dituzten balio katastralen artean hainbanatuz kalkulatu da.

Elementuz elementu, hau da, banaka egingo da amortizazioa. Halere, amortizazio taulako talde berean sarturik dauden ondare elementuak direnean, guztiak batera hartuta egin ahal izango da amortizazioa, betiere ondare elementu bakoitzari dagokion amortizazioaren zatia edozein momentutan jakin badaiteke.

Ibilgetu materialaren ondare elementuak funtzionatzeko moduan jartzen direnetik aurrera hasiko dira amortizatzen eta, ibilgetu ukiezinarenak, ordea, sarrerak sortzeko moduan daudenetik aurrera.

Erabilgarritasun aldiak ezingo du amortizazio taulan jasotako gehieneko amortizazio aldia gainditu.

Erabilta erosten diren ibilgetu materialaren ondare elementuak direnean, amortizazioa erosketa prezioaren gainean kalkulatu da, eta amortizazio linealaren gehieneko koefizientea aplikatuz lortutako kopurua birekin biderkatuta ateratzen dena izango da muga.

Ondasunen erabilpena lagatzen bada erosi edo berritzeko aukera emanda, eta eragiketaren baldintza ekonomikoengatik arrazoizko zalantzarik ez dagoenean bata ala bestea aukeratuko denik, lagapen hartzaileak amortizazio kontzeptuagatik egin dezakeen kenkariaren zenbatekoa ondasun horiei dagozkien

Será amortizable el precio de adquisición o coste de producción, excluido, en su caso, el valor residual.

En las edificaciones, no será amortizable la parte del precio de adquisición correspondiente al valor del suelo, el cual, cuando no se conozca, se calculará prorrateando el precio de adquisición entre los valores catastrales del suelo y de la construcción en el año de adquisición.

La amortización se practicará elemento por elemento, si bien cuando se trate de elementos patrimoniales integrados en el mismo grupo de la tabla de amortización, la amortización podrá practicarse sobre el conjunto de ellos, siempre que en todo momento pueda conocerse la parte de la amortización correspondiente a cada elemento patrimonial.

Los elementos patrimoniales del inmovilizado material empezarán a amortizarse desde su puesta en condiciones de funcionamiento y los del inmovilizado intangible desde el momento en que estén en condiciones de producir ingresos.

La vida útil no podrá exceder del período máximo de amortización establecido en la tabla de amortización.

En el supuesto de elementos patrimoniales del inmovilizado material que se adquieran usados, el cálculo de la amortización se efectuará sobre el precio de adquisición, hasta el límite resultante de multiplicar por dos la cantidad derivada de aplicar el coeficiente de amortización lineal máximo.

En el supuesto de cesión de uso de bienes con opción de compra o renovación, cuando por las condiciones económicas de la operación no existan dudas razonables de que se ejercitará una u otra opción, será deducible para el cesionario, en concepto de amortización, un importe equivalente a las cuotas de

amortizazio kuoten parekoa izango da, eta bere kalkulua amortizazio taulan jasotako koefizienteak ondasunaren erosketa prezioari edo produkzio kostuari aplikatuz egingo da.

Ibilgetu materialaren elementu berriak zergadunaren esku jarri badira ekitaldiaren barruan eta horien balio unitarioa 601,01 eurotik gorakoa baino handiagoa ez bada, askatasunez amortizatu ahal izango dira, baina guztiengatik ezingo da 3.005,06 euroko muga gainditu urtean.

3. 3. fasea. Moduluen etekin garbia.

Hala behar denean, gutxitutako etekin garbiari ondoren zehazten diren indize zuzentzaileak aplikatuko zaizkio, moduluen etekin garbia lortzeko.

Indize zuzentzaileak ondoren adierazten den ordenaren arabera aplikatuko dira gutxitutako etekin garbiaren gainean edo, bestela, haiek aplikatuta zuzendu den etekin garbiaren gainean:

a) Indize zuzentzaile berezia.

Izaera orokorrean 0,80 indizea aplikatuko da titularra ibilgailu bakarra duenean.

0,90 indizea aplikatuko da jarduera traktokamioen bidez egiten denean eta titularrak erdiatorik ez duenean. Jarduera traktokamioi bakarrez eta erdiatorik gabe egiten denean, aldiz, 0,75 indizea aplikatuko bakarrik.

c) Denboraldiko indize zuzentzailea.

Jarduera denboraldiko jardueratzat hartzen denean, ondoko taulako indizea aplikatuko da denboraldiak irauten duenaren arabera.

Urteko egun jakin batzuetan, jarraitu nahiz txandakatu, egiten diren jarduerak hartuko dira denboraldiko jardueratzat, beti ere urteko egun kopuru osoa 180tik gorakoa ez bada.

amortización que corresponderían a los citados bienes, aplicando los coeficientes previstos en la tabla de amortización, sobre el precio de adquisición o coste de producción del bien.

Los elementos del inmovilizado material nuevos, puestos a disposición del contribuyente en el ejercicio, cuyo valor unitario no exceda de 601,01 euros, podrán amortizarse libremente, con el límite anual máximo por todos ellos, de 3.005,06 euros.

3. Fase 3. Rendimiento neto de módulos.

Sobre el rendimiento neto minorado se aplicarán, cuando corresponda, los índices correctores que se establecen a continuación, obteniéndose el rendimiento neto de módulos.

Los índices correctores se aplicarán según el orden en que aparecen enumerados a continuación, sobre el rendimiento neto minorado o, en su caso, sobre el rectificado por aplicación de los mismos:

a) Índice corrector especial.

Con carácter general se aplicará el índice 0,80 cuando el titular disponga de un único vehículo.

Se aplicará el índice 0,90 cuando la actividad se realice con tractocamiones y el titular carezca de semirremolques. Cuando la actividad se desarrolle con un único tractocamión y sin semirremolques, se aplicará exclusivamente, el índice 0,75.

b) Índice corrector de temporada.

Cuando la actividad tenga la consideración de actividad de temporada, se aplicará el índice de la tabla adjunta que corresponda en función de la duración de la temporada.

Tendrán la consideración de actividades de temporada las que habitualmente sólo se desarrollen durante ciertos días del año, continuos o alternos, siempre que el total no exceda de 180 días por año.

<i>Denboraldiaren iraupena</i>	<i>Indizea / Índice</i>	<i>Duración de la temporada</i>
60 egun gehienez	1,50	Hasta 60 días
61 eta 120 egun bitartean	1,35	De 61 a 120 días
121 eta 180 egun bitartean	1,25	De 121 a 180 días

c) Soberakinaren indize zuzentzailea.

Gutxitutako etekin garbia edo, bestela, aurreko indizeak aplikatuta zuzendutakoa 33.640,86 euro baino handiagoa denean, zenbateko horren gaineko soberakinari 1,30 indizea aplikatuko zaio.

d) Indize zuzentzailea jarduera hasteagatik:

Jarduera hastean zergadunak baldintza hauek betetzen baditu:

— Jarduera hori 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hastea.

— Denboraldiko jarduera ez izatea.

— Jarduera hori lehenago beste titularitate edo kalifikazio batekin egina ez izatea.

— Soilik jarduera horretarako erabiliko den lokal edo establezimenduan egitea, eta zergadunak burutu litzakeen beste jarduera ekonomikoetatik guztiz bereizita egotea.

Zergadunak ondoko indize zuzentzaileak aplikatu ahal izango ditu:

Lehen ekitaldian: 0,80 indizea.

Bigarren ekitaldian: 0,90 indizea.

c) Índice corrector de exceso.

Cuando el rendimiento neto minorado o, en su caso, rectificado por aplicación de los índices anteriores, resulte superior a la cantidad de 33.640,86 euros, al exceso sobre dicha cuantía se le aplicará el índice 1,30.

d) Índice corrector por el inicio de la actividad:

El contribuyente que inicie la actividad concurriendo las siguientes circunstancias:

— Que se inicie a partir del 1 de enero de 2011.

— Que no se trate de actividad de temporada.

— Que no se haya ejercido anteriormente bajo otra titularidad o calificación.

— Que se realice en local o establecimiento dedicado exclusivamente a dicha actividad, con total separación del resto de actividades económicas que, en su caso, pudiera realizar el contribuyente.

Tendrá derecho a aplicar los siguientes índices correctores:

Ejercicio primero: Índice 0,80.

Ejercicio segundo: Índice 0,90.

III. ERANSKINA

Jarduera guztietarako orokorrak diren alderdiak

1. Urtea amaitzean edo jarduera eten nahiz denboraldia bukatzean, zergadunak zeinu, indize edo moduluen zenbatekoaren batez bestekoa kalkulatu beharko du urte natural horretan jardueran aritu den denbora osoa kontuan hartuz. Halaber, bidezko etekin garbia ere kalkulatu du.

2. «Merkantzien errepide bidezko garraioa» jardueran izan ezik (JEZaren 722. taldea), langile langabetuak ez dira soldatepeko pertsonatzat hartuko kontratatuak izan diren ekitaldian, haien kontratua mugagabea denean eta honako talde hauekoren batean sartuta daudenean:

- a) Hogeita hamar urtetik beherako gazte langabetuak.
- b) Enplegu Bulegoan gutxienez hamabi hilabetez izena emanda dauden langabetuak.
- c) Berrogeita bost urtetik gorako langabetuak.

Aurreko parrafoan xedatutakoa aplikatzeko, ezinbestekoa izango da zergaldi bakoitzaren amaieran edo, lehenago bada, jarduera uzten den egunean, soldatepeko langile kopuruak ekitaldi hasieran zegoen kopurua gainditzea. Ondorio horietarako, bere jarduera guztietan enpresariari zerbitzuak eskaintzen dizkietenak izango dira soldatepeko langileak, jarduera horien etekin garbia kalkulatzeko erabiltzen den metodo edo modalitatea edozein dela ere.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren zeinu, indize eta moduluen modalitatea aplikagarri duten eta hari uko egin ez dioten jardueren etekin garbia kalkulatzeko, ondoko langile hauek ez dira ekitaldian zehar soldatepeko langiletzat hartuko: Ekitaldiaren hasieran iraupen jakineko edo aldi baterako kontratuak indarrean dituztenak, baldin eta beren kontratuak, edozein modalitatetakoak izanik ere, mugagabe bihurtzen badira. Gauza bera gertatuko da ikastun-kontratuak, praktikaldikoak, prestakuntza-koak, errelebukoak eta jubilazio adina aurreratzeagatik ordezkapen kontratuak dituzten langileekin, edozein egunetan egiten direla ere, ekitaldian zehar mugagabe bihurtzen direnean.

4. Aurreko 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoa ez da aplikatu hurrengo kasuetan:

- a) Martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak, Langileen Estatutuari buruzko Legea onartzekoak, 2.1 artikuluan jaso edo beste legezko xedapenetan zehazten diren lan harreman bereziak daudenean.
- b) Enpresariaren, juridikoki sozietate itxura duten enpresetako zuzendaritza karguen nahiz bertako administrazio organoetako kideen ezkontideak, edo izatezko bikote lagunak, bikote horiek beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu badira, aurreko ahaideak, ondorengoak eta bestelako senitartekoak, odolkidetasun edo ezkontza bidezkoak, bigarren mailaraino, hau barne, kontratatzen direnean, eta kontratazioak administrazio organoetako kideei dagozkienean.
- c) Kontratazioa egin aurreko lehen hogeita lau hilabeteetan, enpresa berean edo enpresa talde berean kontratu mugagabe batekin aritu diren langileak kontratatzen direnean.

ANEXO III

Aspectos comunes a todas las actividades

1. Al finalizar el año o al producirse el cese de la actividad o la terminación de la temporada, el contribuyente deberá calcular el promedio de la cuantía de los signos, índices o módulos relativos a todo el período en que haya ejercido la actividad durante dicho año natural, procediendo, asimismo, al cálculo del rendimiento neto que corresponda.

2. Excepto en la actividad de «Transportes de mercancías por carretera», grupo 722 del IAE, no se computarán como personas asalariadas, durante el ejercicio en que sean contratados, los trabajadores desempleados incluidos en alguno de los colectivos que se relacionan a continuación, que sean contratados por tiempo indefinido:

- a) Jóvenes desempleados menores de treinta años.
- b) Desempleados inscritos en la Oficina de Empleo por un periodo de, al menos, veinticuatro meses.
- c) Desempleados mayores de cuarenta y cinco años.

La aplicación de lo dispuesto en el párrafo anterior exigirá que el número de personas asalariadas al término de cada período impositivo, o al día de cese en el ejercicio de la actividad, si fuese anterior, sea superior al número de las existentes al inicio del ejercicio. A estos efectos, se computarán como personas asalariadas las que presten sus servicios al empresario en todas las actividades que desarrolle, con independencia del método o modalidad de determinación del rendimiento neto de cada una de ellas.

3. A efectos de determinar el rendimiento neto de las actividades a las que resulte aplicable y por las que se haya optado a la modalidad de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, los trabajadores con contratos de duración determinada o temporal, vigentes al inicio del ejercicio, cuyos contratos sean objeto de transformación en indefinidos, cualquiera que sea la modalidad contractual objeto de transformación, así como los trabajadores cuyos contratos de aprendizaje, prácticas, para la formación, de relevo y de sustitución por anticipación de la edad de jubilación, cualquiera que sea la fecha de su celebración, se transformen en indefinidos, no se computarán como personas asalariadas durante los veinticuatro meses siguientes a la citada transformación.

4. Lo previsto en los números 2 y 3 anteriores no será de aplicación en los supuestos siguientes:

- a) Relaciones laborales de carácter especial previstas en el artículo 2.1 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, o en otras disposiciones legales.
- b) Contrataciones que afecten al cónyuge o pareja de hecho, constituida con arreglo a lo dispuesto la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho, ascendientes, descendientes y demás parientes, por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado inclusive, del empresario o de quienes ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de sociedad, así como las que se produzcan con éstos últimos.
- c) Contrataciones realizadas con trabajadores que, en los veinticuatro meses anteriores a la fecha de la contratación, hubiesen prestado servicios en la misma empresa o grupo de empresas mediante un contrato por tiempo indefinido.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da, oro bat, langileak lan harreman bat izan badu aurretik beste enpresa batzuekin, eta onurak eskatzen dituen enpresak beste horiek ordeztu baditu martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Langileek kontratua egin aurreko hiru hilabeteko epean amaitzen dutenean beren mugarik gabeko lan harremana.

5. Aurreko 3. zenbakian aipatzen diren pizgarrien onuradunek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Beren zerga obligazio guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea.

b) Enplegu programak aplikatzeak dakartzan onurak jasotzeko aukeratik baztertuta gelditu ez izana aurreikusi gabeko urraketa larriak edo oso larriak egiteagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legegileak, Gizarte alorreko urraketa eta zigorrei buruzko Legearen testu bateratuari buruzkoak, 46. artikuluan esandakoari jarraituz.

Lo dispuesto en el párrafo precedente será también de aplicación en el supuesto de vinculación laboral anterior del trabajador con empresas a las que la solicitante de los beneficios haya sucedido en virtud de lo establecido en el artículo 44 del Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo.

d) Trabajadores que hayan finalizado su relación laboral de carácter indefinido en un plazo de tres meses previos a la formación del contrato.

5. Los beneficiarios de los incentivos previstos en el número 3 anterior deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

b) No haber sido excluidos del acceso a los beneficios derivados de la aplicación de programas de empleo por la comisión de infracciones no previstas graves o muy graves, todo ello de conformidad con lo previsto en el artículo 46 del Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado mediante Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 agosto.